IBILBIDEA
RUTA
ROUTE
ITINÉRAIRE

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

azoka
bizi ordizia

D'ELIKATUZ

Barretxe etxea. 1268an sortutako Erdi Aroko hiribildua inguratzen zuen harresi-atalaren zati baten aztarnak kontserbatzen dituen eraikina. Barruan daude Turismo Bulegoa, Goierriko Interpretazio Zentroa, eta Elikaduraren eta Gastronomiaren Zentroak. Horietan, sakonago ezagutu dezakegu Ordiziako azoka ospetsua, 1512. urteaz geroztik asteazkenero egiten dena.

Casa Barretxe. Edificio donde se conservan restos de un tramo del lienzo de muralla que rodeaba la villa medieval fundada en 1268. En su interior se ubican la Oficina de Turismo y el Centro de Interpretación del Goierri y los dedicados a Alimentación y Gastronomía, donde podemos conocer más en profundidad el afamado mercado de Ordizia, que se celebra cada miércoles desde el año 1512.

EU

ES

EN

FR

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

PERU

Artzainak gure mendietatik herrietara jaisten ziren, beren arkumeak ekarri eta hiriko biztanleen eskura jartzeko. Bada, artzain horiek irudikatu ditu Peruk. Artzaintza antzinako ogibidea da, eta lotura estua du asteroko azokarekin.

Peru representa a los pastores que bajaban a los pueblos desde nuestras montañas con sus corderos para ponerlos a disposición de los habitantes de la ciudad. Un oficio ancestral, el pastoreo, unido estrechamente al mercado semanal.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

GOIZANE

Javier Arrieta eskultoreak gaztainondo-zurez egindako eskultura. Urteetan zehar, baserrietako emakumeak eguneko lehen argi-izpiekin batera iritsi izan dira Ordiziara, lurrak emandako produktuak saltzera, hala nola barazkiak, frutak eta lekaleak. Horiek irudikatu nahi izan ditu Arrietak bere eskulturan. Gure herri eta hirietan baserrien presentzia bermatu dute emakume horiek.

Escultura realizada en madera de castaño por el escultor Javier Arrieta. Representa a todas esas mujeres que durante años han llegado a Ordizia con los primeros rayos de luz del día, a traer los productos que ofrece la tierra: verduras, frutas, legumbres... Estas mujeres han garantizado la presencia de los caseríos en nuestros pueblos y ciudades.

Feria 30 de Mayo 1934

Calle Mayor
Mercado de Aves

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

ordizia
bizi herria

azoka
bizi ordizia

UDALETXEKO ARKUPEAK / BAJOS AYUNTAMIENTO

Salmentarako eta hornidurarako establezimenduetan egiten zen jarduera izaten zen hiriko garrantzitsuenetako bat. Bai alondegia eta bai udal-harategia udaletxeko arkupeetan zeuden hasiera batean.

Leku honetan kokatu izan dira aleak eta gazta saltzeko postuak. Eta, urte askotan, bertan egon zen udal-baskula.

Los establecimientos de venta y aprovisionamiento suponían una de las actividades más importantes de la villa. Tanto la alhóndiga como la carnicería municipal se encontraban en un principio ubicadas en los soportales del ayuntamiento.

En este lugar se han ubicado tradicionalmente los puestos de venta de grano y queso. Y durante muchos años se ubicaba aquí la Báscula municipal.

EU

ES

EN

FR

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

ordizia
bizi herria

azoka
bizi ordizia

MARIANE | OILO KALE / CALLE DE LOS POLLOS

Javier Arrieta eskultoreak harriz egindako eskultura. Asteazkenero kale honetan arrautzak, oiloak eta abar saltzeko jartzen ziren emakumeak irudikatzen ditu. Kale honi "Oilo kale" esaten zaio. Animaliekin lotutako beste jarduera batzuk ez bezala (hala nola behiekin nahiz txerriekin lotutakoak ez bezala), oiloak eta arrautzak saltzea emakumeen lana izaten zen.

Escultura realizada en piedra por el escultor Javier Arrieta. Representa a las mujeres que cada miércoles se colocaban en esta calle para vender sus huevos, gallinas... Se conoce popularmente como "Oilo kalea" o Calle de los Pollos. A diferencia de otras actividades relacionadas con animales (como vacas y cerdos), ésta solía correr a cargo de las mujeres.

EU
ES
EN
FR

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

GELTOKIKO ESKILARAK / ESCALERAS DE LA ESTACIÓN

Azokara trenez etortzen zirenen sarbidea zen. Tren-geltokia 1869ko azaroan inauguratu zen. Horrek nabarmen hobetu zuen herrien arteko komunikazioa, eta onura handia ekarri zion Ordiziari, herria oso estu lotuta baitzegoen merkataritzarekin.

Era el lugar de entrada para quienes venían al mercado en ferrocarril. La estación de tren se inauguró en noviembre de 1869, hecho que mejoró sustancialmente la comunicación entre los pueblos y supuso un gran beneficio para una localidad estrechamente ligada al comercio como Ordizia.

EU ES EN FR

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

ALHONDIGA | MUXIKA DORRETXEA / CASA TORRE MUXIKA

Denbora luzez, azokara produktuak saltzera joaten zirenek Santa Maria kalean aparkatu ohi zituzten beren kamionetak edo kamioiak. Gainera, kontuan izanik kale hori alondegitik hurbil zegoela (Muxikako Dorretxearen etxabeetan baitzegoen), aparkalekua hor izateak erraztu egiten zituen zamalanak.

La calle Santa María fue durante mucho tiempo lugar de aparcamiento para camionetas, camiones, y demás medios de las y los vendedores que acudían con diferentes productos al mercado. Además, la cercanía con la Alhóndiga (situada en los bajos de la Casa Torre Muxica) favorecía las labores de carga y descarga.

EU

ES

EN

FR

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

ordizia
bizi herria

azoka
bizi ordizia

GOEN PLAZA / PLAZA GOEN



Asteazkenero, ganadu-ferietan, leku askotako erosleak eta saltzaileak (tratulariak) biltzen ziren, behiak, idiak eta abar saltzeko, edo tratu nahiz akordioak lortzeko. Jarduera horretan gizonezkoek parte hartzen zuten, nagusiki.

Plaza honetan, gaur egun, Jorge Oteizaren "2 gaineko 1, multzo hirukoitza. Nikolas Lekuonaren omenaldia" eskultura ikus dezakegu, 1998ko martxoaren 19an inauguratua. Gurutze etzanaren formako eskultura da, eta osotasun bat eratzen duten hiru zati ditu.

Cada miércoles en las ferias de ganado se reunían compradores y vendedores (tratantes) de zonas muy diversas para llegar a tratos o acuerdos, para vender sus vacas, bueyes, etc. Era una actividad eminentemente masculina.

Actualmente en esta Plaza podemos ver la escultura de Jorge Oteiza "Conjunción Ternaria 1 sobre 2. Homenaje a Nicolás Lekuona" que se inauguró el 19 de marzo de 1998. Esta escultura en forma de cruz tumbada está compuesta por tres partes que forman un todo.



Callejón Ibarbia — Feria 30 de Mayo 1934

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

GARAGARTZA PLAZA / PLAZA GARAGARZA

Tradizioz, leku honetan biltzen ziren eskualde osoko eta inguruko erosle eta saltzaileak ganadu-feriak egitera. Feria horiek ziren asteroko azokaren indarguneetako bat, eta jende gehien biltzen zutenak. Jarduera hori zela eta, ibilgailu ugari iristen ziren (furgonetak, orgak...), beharrezkoak baitzituzten ganadua garraiatzeko.



Lugar tradicionalmente utilizado para celebrar las Ferias de Ganado en las que se reunían compradores y vendedores de toda la comarca y alrededores. Estas ferias eran uno de los puntos fuertes del mercado semanal y las que más gente atraían. Dicha actividad implicaba la llegada de numerosos vehículos (furgonetas, carros...) necesarios para el transporte del ganado.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

AZOKA PLAZARA SARBIDEA / ENTRADA PLAZA DEL MERCADO

Ordiziako asteroko azokak gune nagusi bat du: Plaza Nagusia. Eraikuntza berri samarra da, 1925ekoa baita. Lehenago ere, gaur egun plazak hartzen duen orubean egiten zen azoka. Plaza hau hirigune historikoaren erdian dago, hau da, 1268an sortutako hiribildu harresituarekin batera eratutako eremu horretan.

Plaza barruan, baserritarrak eta tokiko produktuen saltzaileak jartzen dira, nagusiki.

El mercado semanal de Ordizia tiene un espacio principal de celebración, la Plaza Mayor. Se trata de una construcción relativamente reciente, pues data de 1925. Anteriormente, el lugar de celebración era el solar que hoy ocupa la Plaza, que se encuentra en el centro del casco histórico surgido con la fundación de la villa amurallada en 1268.

En el interior de la Plaza se ubican fundamentalmente baserritarras y vendedoras y vendedores de productos locales.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

ASTO KALE / CALLE DE LOS BURROS

Labekale ere esaten zaio. Izen horrek adierazten du kale honetan bertan egongo zela hiribilduko herri-labeetako bat. Herri-labe eta herri-erroten erabilera herriko bizilagunen pribilegioetako bat zen, 1268an Gasteizko Forua eman ondoren lortua.

Asto Kale izenak kale honen erabileretako bati egiten dio erreferentzia; alegia, bai saltzaile eta bai erosle askok astoak baliatzen zituztenez azokara joateko eta produktuak garraiatzeko, astoentzako "aparkaleku" gisa erabiltzen zuten kale hori.

También conocida como Labekale, nombre que indica que en ella se ubicaría alguno de los hornos comunales de que disponía la villa. El uso de los hornos y molinos comunales era uno de los privilegios del que gozaban las y los vecinos de la localidad tras la concesión del Fuero de Vitoria en 1268.

El nombre de Asto Kale hace referencia a uno de los usos que tenía esta calle: servir de "parking" para los burros que muchas y muchos vendedores y compradores utilizaban para acudir al mercado y como medio de transporte de productos.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria

azoka
bizi ordizia

GOIERRIKO NEKAZAL KOOPERATIBA / COOPERATIVA AGRÍCOLA DEL GOIERRI

Kale honetan zegoen txerrien salerosketa-gunea. Jarduera hori, ganadu-ferietakoa bezala, gizonek egiten zuten gehienbat. Familia asko etortzen ziren azokara asteazkenero: gizonak, txerriak eta behiak saltzera; eta emakumeak, beren baserrietako oiloak, oilaskoak, frutak eta barazkiak saltzera.

Goierriko Nekazal Kooperatiba 1920ko irailaren 29an sortu zen, "Sindicato Agrícola Alkartasuna de Villafranca" izenarekin. "Tokiko nekazaritza garatzea eta baserritar txikien elkartasuna ezagutaraztea" zen haren helburua, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere.

En esta calle se ubicaba la zona de compraventa de cerdos, actividad que, como las ferias de ganado, era casi exclusivamente realizada por hombres. Muchas familias venían todos los miércoles al mercado; los hombres para la venta de cerdos y vacas, y las mujeres al cargo de la venta de gallinas, pollos, fruta y verdura de sus caseríos.

La Cooperativa Agrícola del Goierri se fundó el 29 de septiembre de 1920 con el nombre de Sindicato Agrícola Alkartasuna de Ordizia. Su objetivo, que hoy sigue vigente, era "desarrollar la agricultura local y dar a conocer el espíritu de solidaridad de las y los baserritarras pequeños".



Feria 30 de Mayo 1934 Ganado Cerdal

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
ordizia bizi herria